


HAZINNNOVA

16

Berrikuntza
praktika onak

2022



Hazinnova

Berrikuntza praktika onak

Hazinnova Euskadiko enpresa txiki eta ertainei berrikuntzaren bidean laguntzeko programa bat da, adituen aholkularitzaren bidez ETE-ei lehiakorrago izaten laguntzeko, modu azkar, arin eta errazean.

Argitalpen honetan, hainbat sektoretako euskal ETE-en 16 adibide deskribatzen dira. Programaren 2022ko deialdian urrats hau ematea erabaki eta berrikuntzako mikroproiektu bat garatu zuten ETE horiek: zehazki, berrikuntza ez-teknologiko bat gauzatu zuten 3 hilabetetan, eta adituen doako laguntza izan zuten 50 orduz, baita berrikuntzaren sustapenerako sareko eragile baten aholkularitza ere (tokikoa edo sektorekoa zen eragile hori).

Berrikuntza ez da enpresa handiei mugatutako terminoa. Enpresa txiki eta ertainek ere berritu dezakete eta berritu egin behar dute; izan ere, hauxe da berrikuntzaren funtsa: ideia, kontzeptu, produktu, zerbitzu eta jardun berriak sortzea eta aplikatzea, horien bidez enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzeko.

Hori guztia aintzat hartuta, Hazinnova berrikuntza praktika onen katalogo honen asmoa da 2022an gauzatu diren zenbait ekimenen berri ematea, berrikuntzaren ikuspegitik hainbat alderdi aztertzeko, hala nola kostuen kontrola, hornitzaileen kudeaketa,

ingurumen-inpaktua murriztea, produkzio-prozesuak optimizatzea, inbentarioaren kudeaketa, hornidura-katea monitorizatzea, errendimenduaren ebaluazioa, lanbide-profil berriak erakartzea, bezero berriak bilatzea, online marketineko estrategia bat garatzea, produktuak eta zerbitzuak dibertsifikatzea...

Hazinnova programaren eskutik hainbat ekimen gauzatu daitezke aipatutako esparru horietan, berrikuntzako mikroproiektuak garatuz eta txertatuz. Berrikuntzako ekimen eta proiektu txiki horiek ez dute inbertsio handirik eskatzen, baina hilabete gutxiren buruan emaitzak eman ditzakete eta ematen dituzte. Programa, gainera, bereziki diseinaturata dago horrelako proiektuak martxan jartzen esperientziarik ez duten bost langiletik gorako euskal ETE-entzat. Berrikuntzaren aldeko apustua da epe ertain-luzera, berrikuntza funtsezko tresna baita euskal ETE-en etorkizuna bermatzeko.

Zerbitzuaren lehen hiru edizioetan, 658 ETEk 1.091 proiektu gauzatu dituzte jada, eta proiektua bera eta eskuratutako emaitzak aintzat hartuta, 10etik 9ko balorazioa egin dute.

Sarrera	3
Berrikuntza praktika onak	7
01 / Eremu ekonomiko finantzarioa	
Embalan3	7
Rafael Matías	9
02 / Barne-administrazio eremua	
Sacytrans	11
Solar Viejo de Laguardia	13
03 / Ekoizpen eremua	
Atearen Txokoa	15
Mugafil	17
04 / Logistika eremua	
Jeremías Logistic Services	19
Juan Alkain Jauregui	21
05 / Pertsonen eremua	
Plastibor	23
Sunrise Medical	25
06 / Bezeroen eremua	
Aragonesa de piensos	27
Ferchau Spain	29
07 / Merkatu berrien eremua	
Cran Arte Gráfico	31
Pescados Llorente	33
08 / Produktuaren eremua	
Grupo de compras Ederto	35
Forest Pioneer	37
Hazinnova 2022 enpresen zerrenda	39



Enpresaren datuak

EMBALAN3 SISTEMAS DE EMBALAJE, S.L.

Embalan3 Bergaran helbidea duen enpresa bat da. 49 langile ditu guztira, eta egurrezko industria enbalajeak diseinatzen eta egiten ditu. Bere merkatua neurrian egindako eta tamaina handiko enbalaje bereziak behar dituzten makina erremintako industriak dira, bai eta enbalaje horiek garraiatzeko kudeaketa espezializatua ere.

Kostuak eta prezioak kalkulatzeko


Sektorea: egurrezko enbalajeen fabrikazioa
8 langile

San Juan Auzoa, Larramendi
 industrialdea I-1, 20570 Bergara
 (Gipuzkoa)

Irene Alberdi
 irune@embalan3.com
 943 82 94 83

BEHARRA

Enpresak kostuak kalkulatzeko sistema aldatu behar du. Enpresak produktu berri bat sortu eta patentatu du: berrerabil daitezkeen kutxa tolesgarriak, EPACK3. Jarduera tradizionalan, kostua kalkulatzeko, kasu bakoitzaren azterketa teknikoa egiten da, eta horren balio eko-

nomikoarekin justifikatzen da. Hala ere, EPACK3 sistema berria merkataritzako produktu bat da, unitateko balio txikiagoarekin, eta, ondorioz, kostuak eta prezioak modu azkar eta sinplean kalkulatu behar dira, bulego teknikorik behar izan gabe. Produktu berriak eskaintzen

direnean kostuak kalkulatzeko modua berriro pentsatu behar da: Embalan3 enpresan kalkulu azkarrak behar genituen, xehatutako ikerketa teknikorik egin behar izan gabe.

KONPONBIDEA

Merkataritzako alorreko edo administrazioko edozein pertsonak bezeroei prezioak eman ahal izateko, kostuaren faktoreak identifikatu eta aztertu behar dira. Produktu horietan eragin dezaketen aldagaiak parametrizatu ziren (neurriak,

osagaiak, unitateak eskari bakoitzeko...) bai eta enpresa tarteen helburuak ere. Informazio horrekin guztiarekin, kalkulu orri bat diseinatu zen, eskariaren berezitasunak sartu ostean, eskariaren prezioa kalkulatzeko. Excel orrialde bat diseinatu

da, eta eskariaren berezitasunak adierazten direnean, unitateko salmentaren eta eskari totalaren kostua eta prezioa kalkulatu da.

PROIEKTUAREN HELBURUAK ETA JARDUERA NAGUSIAK

Helburua kostuak aztertzea izan zen, prezioen tarifikatzaileak balio egokiak egin ditzan. Fabrikazio bide berria denez, enpresak moldatu daitezkeen orri bar sortu du, kostua osatzen duten edozein faktoretan egon daitezkeen aldaketekin egokitzeko: lehengaien, langileen, horniduren eta beste batzuen prezioa; produk-

tibitatearen areagotzea edo gutxitzea; produktuan egon daitezkeen aldaketak; etab.

Horretarako, honako jarduera hauek egin ziren:

- Ekoizpen prozesuaren azterketa: faseak eta denbora.

- Zuzeneko eta zeharkako kostuen azterketa xehatua.
- Kostuen kalkulua egitea.
- Tarifikatzaile bat sortzea (bezeroari zuzenean aurkezteko).

AURKITUTAKO OZTOPOAK ETA NOLA GAINDITU DIREN

Zenbait profilek lan egin behar izan dute: kudeatzaileak (EPACK3ren sustatzaileak eta merkatuko prezioak ezagutzen

dituena), salmentak (zenbait faktoreren kostuetan intzidentzia ebaluatzea), bulego teknikoak (bezeroak eskatzen dituen neurri

kubikoen berri ematea, taularen azalera, galerak aurreikustea), finantza bulegoak (inbertsioen amortizazio kostuak, kostu

orokorrak, hornidurak..) eta merkataritza bulegoak (deskontua eskariaren bolumenagatik).

Guztien artean hitz egin ostean, tresna zehatzagoa, sinpleagoa eta erabilgarriagoa egin da: 3 orrialde dituen Excel liburu sinplea:

- 1) Kostuak kalkulatzeko erabilitako hipotesiak.
- 2) Tarifikatzailea.
- 3) Proiektuaren marjina laburtzea.

EMAITZAK ETA IKASITAKOAK

Embalan3 tresna berriari esker honako emaitza hauek lortu dira:

- Bulego teknikoari lana kentzea, balio erantsiko proiektuetan lanean jarraitu ahal izateko.
- Taldeko pertsona gehiago gaitzea kostuak kalkulatzeko eta prezio egoiak eskaini ahal izateko.

• EPACK3 aurrekontua sortzeko arintasuna. Bezeroek erantzun azkarra eskertzen dute eta, ondorioz, gehiago saltzen da.


Enpresak 2023a hasiko du produktu berria fabrikatzeko eta saltzeko prest, eta batez ere, ulertu du zein den prezioak kalkulatzeko prozesua. Ondorioz, edozein

variable aldatuz gero, erantzuna emateko gaitasuna izango du, eta kostuei eragiten dien hipotesien erlaitza aldatu, produktu berriak enpresa marjina nahikoak dituela bermatzeko.

ENPRESAREN TESTIGANTZA

“Kostuak eta ehunekoak egoki kalkulatzeko sistema erraz eta azkarra sortu dugu, eskaintzak modu automatiko eta azkarrean egin ahal izateko.” – Xabier Azpiazu de la Presa, Project Manager

“Sistema honi esker, erosketaren zuzeneko eta zeharkako kostuak kontrolatzen ditugu, bai eta produktu berriaren fabrikazio prozesua ere.” – Iosu Elorza Alberdi, Erosketen zuzendaria



MEDIDAS CAJA				LARGO		ANCHO		ALTO																																											
mm				1200	800	600																																													
m				1.2	0.8	0.6																																													
<table border="1"> <thead> <tr> <th colspan="4">PRESUPUESTO</th> <th colspan="2">EUROS</th> </tr> <tr> <td>NUM.</td> <td colspan="3">2023/000</td> <td colspan="2"></td> </tr> <tr> <td>FECHA</td> <td colspan="3">23/06/2023</td> <td colspan="2"></td> </tr> <tr> <td>CLIENTE</td> <td colspan="3">EMPRESA, S.L.</td> <td colspan="2"></td> </tr> </thead> </table>										PRESUPUESTO				EUROS		NUM.	2023/000					FECHA	23/06/2023					CLIENTE	EMPRESA, S.L.																						
PRESUPUESTO				EUROS																																															
NUM.	2023/000																																																		
FECHA	23/06/2023																																																		
CLIENTE	EMPRESA, S.L.																																																		
<table border="1"> <thead> <tr> <th colspan="2"></th> <th colspan="2">m² madera</th> <th colspan="2">EUROS</th> </tr> <tr> <th colspan="2"></th> <th>Neto</th> <th>% merma</th> <th>m² madera bruto</th> <th></th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>1. Tablero</td> <td>4.217</td> <td>10%</td> <td>4.638</td> <td>41,75 €</td> <td></td> </tr> <tr> <td>2. Herrajes /aux</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>9,45 €</td> <td></td> </tr> <tr> <td>3. PALLET / BASE-PATIN</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>11,34 €</td> <td></td> </tr> <tr> <td>4. SEPARADORES Y REFUERZOS</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>6,91 €</td> <td></td> </tr> <tr> <td colspan="4">PRESUPUESTO DE VENTA</td> <td colspan="2">15.069 €</td> </tr> </tbody> </table>												m ² madera		EUROS				Neto	% merma	m ² madera bruto		1. Tablero	4.217	10%	4.638	41,75 €		2. Herrajes /aux				9,45 €		3. PALLET / BASE-PATIN				11,34 €		4. SEPARADORES Y REFUERZOS				6,91 €		PRESUPUESTO DE VENTA				15.069 €	
		m ² madera		EUROS																																															
		Neto	% merma	m ² madera bruto																																															
1. Tablero	4.217	10%	4.638	41,75 €																																															
2. Herrajes /aux				9,45 €																																															
3. PALLET / BASE-PATIN				11,34 €																																															
4. SEPARADORES Y REFUERZOS				6,91 €																																															
PRESUPUESTO DE VENTA				15.069 €																																															
<table border="1"> <thead> <tr> <th colspan="2"></th> <th colspan="2">m²</th> <th colspan="2">EUROS</th> </tr> <tr> <th colspan="2"></th> <th>Neto</th> <th>% merma</th> <th>m² madera bruto</th> <th></th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Testero</td> <td>0,780</td> <td>0,990</td> <td>0,490</td> <td>2</td> <td>0,920</td> </tr> <tr> <td>Laterales</td> <td>1,200</td> <td>0,990</td> <td>0,990</td> <td>2</td> <td>1,392</td> </tr> <tr> <td>Zócalo</td> <td>1,200</td> <td>0,010</td> <td>0,012</td> <td>2</td> <td>0,024</td> </tr> <tr> <td>Tablero Base</td> <td>1,180</td> <td>0,780</td> <td>0,920</td> <td>1</td> <td>0,920</td> </tr> <tr> <td>Tapa</td> <td>1,200</td> <td>0,800</td> <td>0,960</td> <td>1</td> <td>0,960</td> </tr> </tbody> </table>												m ²		EUROS				Neto	% merma	m ² madera bruto		Testero	0,780	0,990	0,490	2	0,920	Laterales	1,200	0,990	0,990	2	1,392	Zócalo	1,200	0,010	0,012	2	0,024	Tablero Base	1,180	0,780	0,920	1	0,920	Tapa	1,200	0,800	0,960	1	0,960
		m ²		EUROS																																															
		Neto	% merma	m ² madera bruto																																															
Testero	0,780	0,990	0,490	2	0,920																																														
Laterales	1,200	0,990	0,990	2	1,392																																														
Zócalo	1,200	0,010	0,012	2	0,024																																														
Tablero Base	1,180	0,780	0,920	1	0,920																																														
Tapa	1,200	0,800	0,960	1	0,960																																														
<table border="1"> <thead> <tr> <th colspan="2"></th> <th colspan="2">m²</th> <th colspan="2">EUROS</th> </tr> <tr> <th colspan="2"></th> <th>Neto</th> <th>% merma</th> <th>m² madera bruto</th> <th></th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>1. Tablero</td> <td>4.217</td> <td>10%</td> <td>4.638</td> <td>41,75 €</td> <td></td> </tr> <tr> <td>2. Herrajes /aux</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>9,45 €</td> <td></td> </tr> <tr> <td>3. PALLET / BASE-PATIN</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>11,34 €</td> <td></td> </tr> <tr> <td>4. SEPARADORES Y REFUERZOS</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>6,91 €</td> <td></td> </tr> </tbody> </table>												m ²		EUROS				Neto	% merma	m ² madera bruto		1. Tablero	4.217	10%	4.638	41,75 €		2. Herrajes /aux				9,45 €		3. PALLET / BASE-PATIN				11,34 €		4. SEPARADORES Y REFUERZOS				6,91 €							
		m ²		EUROS																																															
		Neto	% merma	m ² madera bruto																																															
1. Tablero	4.217	10%	4.638	41,75 €																																															
2. Herrajes /aux				9,45 €																																															
3. PALLET / BASE-PATIN				11,34 €																																															
4. SEPARADORES Y REFUERZOS				6,91 €																																															
<table border="1"> <thead> <tr> <th colspan="2"></th> <th colspan="2">m²</th> <th colspan="2">EUROS</th> </tr> <tr> <th colspan="2"></th> <th>Neto</th> <th>% merma</th> <th>m² madera bruto</th> <th></th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>1. Tablero</td> <td>4.217</td> <td>10%</td> <td>4.638</td> <td>41,75 €</td> <td></td> </tr> <tr> <td>2. Herrajes /aux</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>9,45 €</td> <td></td> </tr> <tr> <td>3. PALLET / BASE-PATIN</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>11,34 €</td> <td></td> </tr> <tr> <td>4. SEPARADORES Y REFUERZOS</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>6,91 €</td> <td></td> </tr> </tbody> </table>												m ²		EUROS				Neto	% merma	m ² madera bruto		1. Tablero	4.217	10%	4.638	41,75 €		2. Herrajes /aux				9,45 €		3. PALLET / BASE-PATIN				11,34 €		4. SEPARADORES Y REFUERZOS				6,91 €							
		m ²		EUROS																																															
		Neto	% merma	m ² madera bruto																																															
1. Tablero	4.217	10%	4.638	41,75 €																																															
2. Herrajes /aux				9,45 €																																															
3. PALLET / BASE-PATIN				11,34 €																																															
4. SEPARADORES Y REFUERZOS				6,91 €																																															

Enpresaren datuak

RAFAEL MATÍAS, S.L.

Rafael Matías Bilbon dago, eta 50 urte baino gehiagoko esperientzia du (2. belaunaldia) profesionalentzat (atelierrak, jostunak eta jantzi-egileak) zein partikularrentzat handizkako oihalak aukeratzen. Nazio-mailako merkatuan egiten du lan, bertako merkatariekin eta ordezkarien sare batekin. Nazioko eta nazioarteko produktuekin egiten dute lan, Txina eta Indiako zein Europako produktua inportatuz.

Planifikazioa eta jarraipena



**Sektorea: handizkako ehunak
14 langile**

Ibarrekolanda kalea, 30 – Bilbo – Bizkaia

Miren Aguirregaviria
contabilidadproveedores@rafaelmatias.com
944 794 850

BEHARRA

Nazio-mailan, Rafael Matías oihalen aukeraketa eta salmentaren lidertzat jotzen da, eta produktu, zerbitzu eta aholkularitzaren kalitatea du posizionamenduaren bereizgarri gisa. Azken ur-

teotan sektorearen eskaria txikituz joan da bizimodu eta ohituren aldaketak direla eta, lehen jarduten zuten enpresa gehienak desagertu dira, baita bezero asko ere (atelierrak, jostunak eta jantzi-egi-

leak). Kezka horren ondorioz, etorkizuna planteatu dute eta informazioan oinarritutako erabakiak hartu nahi dituzte, beraz, 3 urte barruko emaitzen kontuaren zenbaki-egoera izan nahi zuten.

KONPONBIDEA

Egun ERP-an dituzten informazio-iturriak aztertu ditugu, eta, maila estrategikoan, enpresaren norabidearen gaineko hausnarketa egin da, egungo negozioa ulertzeko eta epe luzerako nahi den eredia zehazteko; Merkatuko aldaketek negozioaren etorkizuna birpentsatu eta birplanteatzera behartzen dute. Informazioan oinarritutako erabakiak hartu behar

dira, planifikazioa eginez, zenbaki-egoerak planteatuz.

Egungo negozio-eredua eta etorkizuna eurotan parametrizatu da, hipotesi batean oinarrituz, desbideraketak ezagutu eta horien jarraipen errepikakorra egin ahal izateko. Enpresak orain 3 urterako emaitzen kontua aurreikusi du, hileroko

jarraipenarekin, egoera aztertzeko eta epe laburrean erabakiak hartzeko. Neurria plangintza-eredua (Excel) egitea, negozioaren etorkizunean garrantzia duten aldagaien banakapenarekin (salmenten aurrekontuak, kostuak, gastuak). Horrekin posiblea da egoerak planteatzea eta erabakiak hartzeko informazioa izatea.

PROIEKTUAREN HELBURUAK ETA JARDUERA NAGUSIAK

Helburua haiek editatu eta egokitu zezaketen Excel tresna garatzea zen. Zenbait mailatako datuak jasotzen ditu: bezero motaren araberako salmentak, urterokotasuna, kostu finko eta aldakorak, produktuaren marjinak, egituraren gastuak, arloaren araberako langileen gastua, finantza-karga, inbertsioak...).

Horretarako, honako jarduera hauek egin ziren:

- Eskura zeuden informazio-iturrien analisia, jarraipenean denbora gutxien erabiltzeko.
- Nahi den negozio-ereduaren gaineko hausnarketa.
- Hipotesien orriak egitea, oinarri gisa

aurrekoa eta Kontabilitateko Plan Orokorra izanda.

- Gaur arteko kontabilitateko datu erreala inportatzea, horien funtzionamendua ikusteko.
- Lortutako emaitzen noranzkoarekin analisia egitea, dagoeneko zenbait erabaki hartzeko erabili dena.

AURKITUTAKO OZTOPOAK ETA NOLA GAINDITU DIREN

Enpresaren kudeaketa-maila dagoeneko altua zen, eta horri esker inolako oztoporik gabe egin da lan: bere informazio-sistema ona zen, eta hasieratik kalitatezko txostenak izatea erraztu du. Hala ere, kontabilitateko planean aldaketak egitea proposatu da, esate baterako, partida

batzuen zehaztasun gehiago izateko eta plangintzan izandako banakapen bera izateko (adib. sailen arabera banatutako langileen gastuen kontu banatuak izatea).

Hurrengo hilabeteetan, enpresak kudeaketarako bere barne-ohituretan

urteko plangintza eta hileroko jarraipen prozesu hau sartzeko erronkari egin beharko dio aurre hurrengo hilabeteetan, informazio-sistema aldizka eguneratuta mantenduz, prozesuaren helburua mantentzeko.

EMAITZAK ETA IKASITAKOAK

Rafael Matiasek orain informazio-sistema osoa, pertsonalizatua eta enpresaren neurriari du. Zenbaki-mailan epe labur eta luzerako helburuak jasotzen dira, eta, kontabilitate orokorraren bidez, desbideraketan jarraipen xehatua egin daiteke. Hortaz, hileroko informazio-sistema bera berrelikatzen duten erabakiak har daitezke.

Horrek kudeatzeko gaitasunean aurrerapausoa ematea dakar, arduradunen esperientzian oinarritutako erabakiak hartzetik abiaraziz erabaki are sendoagoak hartzen lagunduz, eta erabaki horiek elkar osatzen dute eta informazio objektibo eguneratuan oinarritzen dira.

Egindako hausnarketa-prozesuak aditzera eman du egungo ERP informazio-sistemak are informazio gehiago (merkataritza-mailako informazioa, produktuen marjinena, eremu geografikoena, familiak, etab.) erabiltzeko duen potentziala.

ENPRESAREN TESTIGANTZA

“Tresnari esker gure negozioa ikuspuntu desberdin batetik ikusi ahal izan dugu, arlo guztiak sartuz eta lehenago aztertu ez ditugun adierazleak identifikatuz. Ondorioz, negozioaren kontrol zehatzagoa egin dezakegu eta desbideraketak tratatu ditzakegu.

Gainera, datu errealean inportazioa oso erraza da kontabilitatearen bidez, orain garrantzizko informazio askoz gehiago dugu.”

“Helburuak zenbaki bihurtzen ikasi dugu. Egungo egoeraren diagnostikoan oinarrituz, etorkizuneko bilakaeraren berrikusketa egiteari esker, adierazleak ezarri, desbideraketak hauteman eta garaiz konpondu ahal ditugu.”

Mes de Enero					Acumulado al mes de Enero						
Previsto	%	Real	%	Diferencia	% LPI	Previsto	%	Real	%	Diferencia	% LPI

Enpresaren datuak

Administrazio-prozesua optimizatzea

SACYTRANS S.L.



Sacytrans Irunen dagoen familia-enpresa da, eta horren jarduera nazioarteko mailan salgaiak garraiatzean datza.

Sektorea: garraioa
12 langile

Irun, Gipuzkoa

Sofia Isasl Vicondoa
sisasi@sacytrans.com
943 666 075

BEHARRA

Enpresaren eguneroko operatiboaren analisi xehatua, fokua alderdi administratiboetan eta kudeaketa orokorretakoan

jarriz, hobetu beharrekoak eta horien konponbide potentzialak identifikatzeko.

KONPONBIDEA

Hazinnova programaren bidez administrazio-prozesuaren eta barneko kudeaketaren analisi xehatua egin zen, erakundearen tresnak, baliabideak eta rolak

identifikatuz. Lan egiteko moduan sakondu zen, egungo egoera hobe ulertzeko; ahultasunak eta hobetzeko puntuak identifikatu ziren, enpresarako

etorkizunerako ikuspegia diseinatu zen eta konponbideak lehenetsi eta horiek ezartzeko ekintza-plana ezarri zen.

PROIEKTUAREN HELBURUAK ETA JARDUERA NAGUSIAK

Helburua izan zen zehazki administrazio-sailaren egungo operatiboa ezagutzea, eraginkortasun gabeko alderdiak eta epe laburrean ezartzeko konponbide potentzialak identifikatzeko. Administrazio-sailaren egungo operatiboaren analisiaren bidez enpresaren administrazio-prozesua eta barne-kudeaketa optimizatu nahi izan zen.

Horretarako, hiru fase egin ziren: (1) kudeatzailletza eta langileekin elkarrizketak egitea, horien eguneroko rolak, ardurak eta eginkizunak ezagutzeko; (2) egungo operatiboaren analisi eta irudikapen grafikoa egitea; eta (3) hobetzeko konponbide potentzialak proposatzea.

Hazinnova programari esker, ikuspegi orokorra sortu zen eta administrazio-prozeduraren eta barne-kudeaketaren

gaineko hausnarketa egin zen, erabilitako tresna eta baliabideak identifikatuz eta zehatz-mehatz erakundeko kideen rolak eta zereginak deskribatuz. Horri guztiari esker, prozesua osatzen zuten faseei balio handia eman zitzairen, hobetzeko arloak eta enpresaren prozesua optimizatzeko konponbide potentzialak identifikatzen utziz.

AURKITUTAKO OZTOPOAK ETA NOLA GAINDITU DIREN

Elkarrizketak egitean konplexuak izan daitezkeen gaiak ekin zitzairen, hala nola lan-kargen banaketa eta jubilatzen ondorioz berregituratzea. Une oro,

administrazio-saileko langileek profesionaltasun altua adierazi zuten, enpresarekin konpromiso altuaz gain.

EMAITZAK ETA IKASITAKOAK

Honako hauek izan ziren lan-saiioetan lortutako erdiespenak:

- Maila altuko administrazio-prozesua identifikatzea, rol eta arduren zehaztasunekin, baita eguneko zereginekin ere.
- Hobetu daitezkeen arloak eta horien egungo ahuleziak zehaztea, zereginen banaketa orekatuagoa izateko.
- Administrazio- eta kudeatzailtza-mailako jarduera-arloak esploratzea, hazkuntza iraunkorra eta prozesu eraginkorragoa izatea bideratzen dutena.

Hazinnova programaren bidez ikuspegi orokorra izatea eta prozesu-administratiboaren eta barne-kudeaketaren hausnarketa egitea lortu zen, osatzen duten faseetan balioa erantsiz, erabiltzen dituzten tresna eta baliabideak identifikatuz, eta modu zehatzean erakundeko kideen rol eta zereginak deskribatuz.

Ikasitakoa:

- Garrantzitsua da enpresaren administrazio-prozesuan parte hartzen duten pertsona guztiak sartzea eta programaren helburuarekin gardenak izatea, taldearen parte-hartze handiagoa lortzeko.

- Sartutako pertsona guztiek zehaztutako ekintza-planaren arduraren hartu behar dute proposatutako hobekuntza-ekintzen arrakasta bermatzeko. Horretarako beharrezkoa da hasieratik hausnarketa-prozesuan komunikazioa izatea eta parte hartzea.
- Administrazio-prozesuaren rol eta eginkizunen deskribapen zehatzak ahulezien identifikazioa eta erabakiak hartzea errazten du.

ENPRESAREN TESTIGANTZA

“Administrazio- eta kontabilitate eta finantza-sailetan zereginen epe eta erantzukizunen ikuspegi argia dugu, horri esker horiek modu eraginkorragoan antolatzeke gai izan gara, baita saila berrantolatzeke, osatzen duten pertsonetako bat jubilatzen denerako.” – Sofia Isasi Vicondoa, Finantza-zuzendaria

“Kudeatzailtza pixka bat libratzeko kontratatu behar dugun pertsonaren profila zehazten lagundu digu; estrategian egin beharko du lan, baita trafikoko sailean ere, gure ekoizpen-saila denez, indartsuagoa eta eraginkorragoa izan dadin.” – Jose Fuentes Garcia Bernardo, Gerentzia

Enpresaren datuak

SOLAR VIEJO DE LAGUARDIA S.L.

Guardiako Solar Viejo enpresa Ferrer Miranda taldearen parte da. Ardoa egin, saldu, merkatura, banatu, esportatu eta bidali egiten dute. Upategiak 6 mahasti hektarea ditu, Kantabriako Mendilerroaren mendi hegalean.

Solar Viejo enpresaren VSM egokitzea

Sektorea: mahastizaintza eta ardogintza
15 langile

Guardia, Araba

Óscar del Río
oscar.delrio@solarviejo.com
600 597 140

BEHARRA

Enpresak Shopify ERP-a erosi berri du merkaturazabaltzeko eta bezeroen egungo beharretara egokitzeko. ERP ho-

rren erabilera optimizatu behar zuen eskarrien, bezeroen eta bidalketen kudeaketa aproposa bermatzeko.

KONPONBIDEA

Hazinnova programaren bidez, Value Stream Mapping tresna erabili zuten eskari, bezero eta bidalketen kudeaketa prozesuak aztertzeko eta optimizatzeko. Tresna horri esker, prozesuen unean uneko egoera ebaluatu daiteke, eta hobekuntzak

aplika daitezke hala behar denean. Horrez gain, eskarien eta bezeroen kudeaketaz zein merkataritza elektronikoaren kudeaketaz arduratzen ziren langileei prestakuntza eman zitzaien, Aipatu behar da prozesu hori Ferrer Mirandak orduan

zituenez negoziotako beste zenbait ildotan ere aplikatu zitekeela, esaterako, merkataritza elektronikoko katalogoaren bidez ardoa saltzea, ardoa aurrez aurre saltzea eta bisita ekoturistikoak.

PROIEKTUAREN HELBURUAK ETA JARDUERA NAGUSIAK

Proiektuaren helburu nagusia zen Solar Viejo upategiko Shopify online salmentarako sistema hobetzea.

Horretarako, jarduerak hiru fasetan banandu ziren:

1. fasean upategiaren egungo egoeraren mapaketa egin zen. Horretarako, elkarrizketak egin ziren arduradunekin, arloetako arduradunekin, administrariekin eta biltegiarekin. Elkarrizketa horren bidez

konpondu beharreko arazoak eta lehen-tasunak identifikatu nahi ziren. Horrez gain, hurrengo fasean landu beharreko espazioa identifikatu zen.

2. fasean proiektuaren irismena eta mugak identifikatu ziren. Helburu hori lortzeko, egungo egoera aztertu zen, eta 1. fasean identifikatutako helburu eta lehentasunetan oinarritutako lan proposamena aurkeztu zen.

Proposamena onetsi ondoren, 3. fasean VSM tresna aplikatu zen prozesuaren egungo egoera ebaluatzeko eta Solar Viejoko Shopify online erosketen prozesuan hobekuntzak egiteko. Ebaluazio horretan zehar, 1. eta 2. faseetan lortutako emaitzak aintzat hartu ziren. Azkenik, 4. fasean, eskari eta bezeroen kudeaketa arduradunak prestatu ziren.

AURKITUTAKO OZTOPOAK ETA NOLA GAINDITU DIREN

Proiektua garatu bitartean, Solar Viejo zein Ferrer Miranda taldeko langileek parte hartu zuten. Pertsona kopuru handia

tartean sartu zirenez, zaila izan zen lan bilera eraginkorrek diseinatzea. Hala ere, tartean sartutako parte lan metodo-

logia adostu ostean, elkarren artean hobe ulertzea lortu zen, eta, ondorioz, ezarritako helburuak lortu ziren.

EMAITZAK ETA IKASITAKOAK

Hazinnova programari esker, Value Stream Mapping sistema Solar Viejo enpresaren beharretara egokitu zen, eta Shopifyren egungo prozesua ebaluatu eta hobetu zen.

Ikasitakoak:

- ERP bat ezarri aurretik, gauzatu beharreko prozesuak ezagutzea. Kasu honetan, Value Stream Mapping tresnari esker, online salmenten prozesuen irudi orokorra lor daiteke Shopify ERP ezartzeko unean.

- Aldian aldi feedbacka emateko bilerak egitea taldean, batez ere ikasketa kurba oso altua den prozesu berrietan.
- Etengabeko komunikazioa izatea tartean sartuta dauden taldeekin, kasu honetan, upategi, logistika eta e-commerceekin.


ENPRESAREN TESTIGANTZA

“E-commercearen administrazio prozesua hobetzea lortu zuten.”

– Sara Pérez, Controller

“Taldearen lan fluxua modu eraginkorrean antolatu zuten.”

– Óscar del Río, Administrazioa



Lakatua fabrikatzeko prozesua integratzeko instalazioaren lay-outaren diseinua

Enpresaren datuak

ATEAREN TXOKOA, S.L.

Atearen Txokoa enpresaren egoitza Urnietan dago, guztira 10 langile ditu, eta askotariko diseinuak (eraigarriak, korazatuak, toleskorrak, irristailuak...) dituzten egurrezko ateak fabrikatu, jarri eta horiek apaintzeko aholkatzen du nagusiki. Gainera, lurzoru laminatu, egurrezkoak eta binilozkoak jartzeko eta horien inguruko aholkua emateko zerbitzua eskaintzen du.



Sektorea: egurrezko eta egurretik eratorritako produktuen salmenta 10 langile

Erratzu industrialdea 170, Urnieta (Gipuzkoa)

Joxe M^a Maiz Telleria
joxemaiz@atearentxokoa.com
943 008 623

BEHARRA

Orain arte, Atearen Txokoak ateen zein prozesu hori behar duten beste osagarrien lakatu-prozesua azpikontratatu du. Hala ere, enpresak prozesua azpikontratzeari lotutako hainbat arrisku hauteman zituen: kalitate-kontrolaren galera, epeak

ez betetzea eta hornitzaileen menpe egotea. Une horretan, prozesua azpikontratzearen arriskuak eta onurak ebaluatu ondoren, enpresak lakatzeko prozesua egungo fabrikazio-prozesuan sartzea erabaki du. Horretarako, instalazioaren

antolamenduaren diseinu berria egiteko aholkularitza berezia eskatu du, enpresaren instalazioetan lakatzeko prozesurako beharrezkoak diren instalazioak integrazeko modu antolatu batean eta ikuspegi orokor batekin.

KONPONBIDEA

Lakatzeko prozesu berria Atearen Txokoaren egungo ekoizpen prozesuan sartu ahal izateko, aholkulariak, hasteko, enpresaren egungo egoeraren analisia egitea proposatu du, eskariaren ezaugarriak kategoriaren arabera ezagutzeko;

horretaz gain, egungo ekoizpen-prozesuaren analisia egitea proposatu du, lehengaiak jasotzen direnetik bidaltzen diren arte, bai eta egungo instalazioaren antolamenduarena ere. Behin hori eginda, salmenta, ekoizpen eta biltegitzeko

arloan etorkizuneko beharrak identifikatu ahalko dira, eta, ezarritako ildoen arabera, instalazioa antolatzen proposamen berria egin ahalko da.

PROIEKTUAREN HELBURUAK ETA JARDUERA NAGUSIAK

Atearen Txokoan instalazioaren lay-out berria diseinatzeko aholkua jasotzea. Lay-out horrek aintzat izango ditu lakatutako ateen fabrikazio-prozesuan sartzeko beharrezko instalazioak.

Helburu hori lortu ahal izateko, honako jarduerak egin ziren:

- Egungo antolakuntzaren funtzionamendua eta arazoa ulertzea.
- Produktuen definizioa egitea eta produktuak kategoriatan arabera sailkatzea.
- Eskariaren ezaugarrien analisia egitea (salmenten bolumena unitateetan).
- Egungo fabrikazio-prozesuaren analisia, kategoriatan banatua, lehengaiak jasotzen direnetik bidaltzen diren arte.
- Egungo lay-outaren analisia.
- Salmentari, ekoizpenari eta beharrezko biltegiari dagokionez, etorkizuneko beharrak identifikatzea.
- Lay-out berriaren diseinurako lerro zuzentzaileak zehaztea.
- Lay-out berriaren proposamena.
- Ezartzeko plana eta hurrengo pausoak.

AURKITUTAKO OZTOPOAK ETA NOLA GAINDITU DIREN

Behin egungo eskariaren ezaugarriak aztertuta, baita egungo fabrikazio-sistemaren prozesua (lehengai jasotzen denetik bidaltzen den arte) eta egungo instalazioaren lay-outarekin batera, hurrengo pausoa salmentari, ekoizpenari eta beharrezko biltegiari dagokionez, etorkizuneko beharrak

identifikatzea izan zen. Puntu horretan, zaila izan zen etorkizuneko erosketa- eta biltegitratze-beharrak kalkulatzea; izan ere, laktzeko prozesu berria sartu ondoren, erosi beharreko lehengaiak eta beharrezko biltegiak (lehengaiarekin zein bitarteko produktuekin) ez zetozen bat.

Ondorioz, kategoriaren arabera hasierako eskaria berrikusi egin behar izan zen, enpresaren merkatuaren ezagutzan eta esperientzian oinarrituz, eta eskaria lehengaien beharri eta stockaren tamainari jakinarazi behar izan zitzaion.

EMAITZAK ETA IKASITAKOAK

Instalazioaren lay-out berriaren diseinuari esker, Atearen Txokoak honako emaitzak lortu ditu:

- Produktuen ezaugarriak aztertzea eta kategoria/familiaren arabera sailkatzea.
- Eskariaren ezaugarriak aztertzea.
- Fabrikazio-prozesuak birdiseinatzea kategoria/familiaren arabera.

- Instalazioaren lay-outaren diseinu berria egitea, laktzeko prozesua hartzen duena, prozesu, makina eta biltegien banaketa hoberenarekin.

- Enpresan laktzeko prozesu berria abiarazteko ezarpen-plana.

Era berean, azpimarratu behar da enpresak, kanpoko lan profesionalari eta datu errealetan eta enpresaren egungo

egoeraren eta etorkizuneko beharren analisi integralean oinarritutako analisiari esker, ulertu ahal izan du enpresaren egoera aurretik ezagutu behar dela fluxuen linealtasuna lehenesteko eta instalazioaren barruan prozesu, makina eta biltegien kokapen fisikoa eta banaketa hobereana diseinatzeko.

ENPRESAREN TESTIGANTZA

Consultora LKS Next enpresaren aholkularitzari esker, Atearen Txokoa enpresak laktzeko prozesuaren jarduera planifikatu eta ondo abiarazi ahal izan du.

Horretarako, alde batetik, zenbait produktu mota aztertu eta sailkatu dira, eta

horien antolakuntza egin da, laktzeko katea abiarazi ahal izateko. Zentzu horretan, aintzat hartu dira produktuaren ezaugarriak, jatorria eta biltegian duen kokapena.

Beste aldetik, Atearen txokoak hurrengo salmentetarako materialen erosketa, ekoizpena eta biltegitratzearekin lotuta dituen beharrak identifikatu ahal izan dira.

Laburbilduz, enpresa pozik dago egindako lanarekin.

Enpresaren datuak

Ura berritzeko prozesuaren optimizazioa

MUGAFIL, S.A.



Mugafil SA familia-enpresa da, alanbreak (leun eta grafilatua) fabrikatzen espezializatua, biribilki zien barretan. Horretaz gain, askotariko produktu siderurgikoak merkaturatzen ditu, mundu osoko 20 herrialde baino gehiagotara esportatuz.

Sektorea: siderometalurgikoa
25 langile

Bidegana, 3 – Jundiz mendebaldeko industrialdea – 01015 Gasteiz - Araba

Ibon Achotegui Osa
ibon@mugafil.com
699 780 190

BEHARRA

Trefilaketa-prozesua egiteko produktu xaboidun bat erabili behar da, eta bezeroari entregatu baino lehen kendu behar da. Xaboa kentzeko prozesua urarekin egiten da, eta gero ur hori tratatu be-

har da araztu ahal izateko. Gaur egun, ura ordeztu eta arazteko prozesua hein handi batean eskuz egiten da, eta mantentze-langileen ardua handia behar da.

Enpresak ardua hori murriztu nahi du, ura ordezteko prozesua mantendu edo hobetuz.

KONPONBIDEA

SMED metodologiaren bidez erabilitako denbora %75 murriztu da inbertsio txiki

batekin. Biltegiak, ponpaketa-sistemak eta lanaren operatiboa aldatu dira.

PROIEKTUAREN HELBURUAK ETA JARDUERA NAGUSIAK

Proiektuaren helburu nagusia mantentze langileek trefilaketa-prozesuan alanbrea-ri aplikatutako xaboa kentzeko erabili den ura ordezteko lana egiteko erabiltzen duten denbora murriztea izan da.

Helburu hori lortu ahal izateko, honako jarduera hauek egin ziren:

- Arazketa-prozesua bideo bidez grabatzea.
- Barneko/kanpoko operazioen sailkapena.

- Barneko operazioen bihurtzea
- Zehaztutako hobekuntzak ezartzea
- Operatibo berria zehaztea (zereginak, tresnak, arduradunak, etab.).

AURKITUTAKO OZTOPOAK ETA NOLA GAINDITU DIREN

Ez dago oztopo aipagarriarik. Proiektua aurreikusitako epeetan eta ezarritako zeregin eta arduren arabera egin da.

EMAITZAK ETA IKASITAKOAK

Egindako proiektuari esker, Mugafilek honako emaitza hauek lortu ditu:

- Mantenu-langileek garbiketaxaboa ordezteko erabilitako denbora %75 murriztea.

- Biltegi- eta ponpaketa-sistema berria diseinatzea.
- Ura ordezteko operatibo berria diseinatzea.

- Hazinnova programan parte hartzen duten beste enpresekin kolaboratzea.

ENPRESAREN TESTIGANTZA

“Proiektuak biltegiak aldatzeko denbora murrizteko balio izan digu, baita bilketaren automatizazioaren bidez lanaren kalitatea hobetzeko ere. Gaur egun, eragiketa horiek mantenu-langileek egiten dituzte, eta lortutako emaitzari esker denbora hori balio erantsi gehiagoko jarduerak egiteko erabili ahalko dugu.”

“Proiektuaren berezko emaitzez gain, ura tratatzeko esparruko zerbitzua ematen duten enprekin harremanetan jarri ahal izan gara, eta enpresa horiek ere Hazinnova ekimenean parte hartu dute. Era horretan, orain arlo horretan lan egiteko orduan hornitzaileen sorta zabala goa dugu.”

Enpresaren datuak

JEREMIAS LOGISTIC SERVICES S.L.



Jeremias enpresa lurretan dago; 50 langile inguru ditu, eta tximinien eta gasak kanporatzeko hodian ekoizpenaren erreferentea da.

Sektorea: metala
<50 langile

Mallabiena industrialdea 3-4 zk., 48125 lurreta, Bizkaia

Angel Veloso Piñeiro
Angel.Veloso@jeremias.es
946 301 010

BEHARRA

Jeremiasen baloreen artean, zenbait arlotan bikaintasuna lortzeko nahia aipatzen da, hala nola “Kalitatean”, “Eraginkortasunean” eta “Fidagarritasunean”, bai konponbideen garapenean bai bezeroaren zerbitzuan.

Bezeroaren zerbitzuan maila ona lortzeko, ezinbestekoa da logistika ona izatea. Eta logistika ona izateko beharrezkoa da ondo diseinatutako prozesuak izatea eta horien etekina neurtzea. Beraz, proiektua abiarazi zuen beharra, hasteko, neurtu

beharreko gakoak zeintzuk ziren zehaztea izan zen, eta, bigarrenik, neurketa horiek nola izan modu errazean eta denboran zehar eguneratuak.

KONPONBIDEA

Logistikaren jarduera ebaluatzen uzten duen eta zuzendu beharreko ahulguneak ohartarazten dituen metodoa sortzea. Lehenengo pausoa honako hau zen: non ardaztu behar dugu neurketa? Horretarako bezeroaren zerbitzuan logistikaren misioa gogoratu behar da:

- Bezeroei “agindutako” zerbitzu-epeak betetzea.
- Eta ahalik eta kostu txikienarekin egitea.

Behin adierazle gakoak zehaztuta, hurrengo pausoa izango da adierazleak

non erakutsiko diren eta denboran nola eguneratuko diren zehaztea.

PROIEKTUAREN HELBURUAK ETA JARDUERA NAGUSIAK

Proiektuaren helburu nagusia da enpresaren logistikaren etekina ebaluatzen uzten duen aginte-kuadroaren neurriak ezartzea.

Helburu hori lortu ahal izateko, honako jarduera hauek egin ziren:

- Adierazle gakoak zehaztea.
- Sistema informatikoan eskuragarri zegoen informazio logistikoa berrikuszea.
- Lehenengo zirriborroa egitea, adierazlearen itxura adieraziz eta adierazi-

tako adierazle bakoitzaren atzeko formulak gehituz.

- Zirriborroa egiteko arduraduna ezartzea eta aginte-koadroa egitea.

AURKITUTAKO OZTOPOAK ETA NOLA GAINDITU DIREN

Aginte-koadroaren diseinua egiteko, askotan sartu beharreko adierazlearen kopuru handiegia jartzeko ohitura dago. Eta faktore horren ondorioz, helburu erreala eta neurtu beharreko puntu gakoak lausotzen dira. Gainera, proiektua egiteko epeak luzatzen

ditu, eraikuntzari zein egiaztatzeari dagokionez. Bestalde, informazio gehiegi badago, gerta daiteke erabiltzaileek aginte-koadroa ez erabiltzea.

Beraz, adierazleak adierazle gakoaren eta gainerako adierazle osagarrien artean banatu zen, eta hasieratik adierazle

gakoak lehenetsi ziren.

- Zerbitzu-maila.
- Kostu logistikoa.
- Biltegiko produktibitateak.

EMAITZAK ETA IKASITAKOAK


Egindako proiektuari esker, Jeremíasek honako hau lortu du:

- Langileen artean neurtzeko garrantziaren gaineko kontzientziazioa areagotzea, eta neurketa hori erabakiak hartzeko eta etengabe hobetzeko erabiltzea.
- Aginte-koadro bat sortzea logistikaren egungo errendimendua une oro ikusteko, bai eta lan-txostenak egitea ere, erabakiak hartzea errazteko.
- Bezeroen zerbitzuaren produktibitatea eta maila areagotzea.

ENPRESAREN TESTIGANTZA

“Proiektu honek ez digu bakarrik gure errendimendu-zenbakiak hobetzen lagundu, erabiltzen ditugun datuen kalitatea hobetzeko kudeaketa sistema hobetzen ere lagundu digu. Gainera, gure informazio-sisteman “garbiketa” egiteko eta sistema “zukutzeko” ere balio digu, horren erabilera hobetuz.”

“Aginte-koadroak gure jardura logistikoaren betetze-maila ezagutzen lagundu digu, baina, bereziki, arazoak edo errendimendu desegokiak dituzten arlo horietan hobetzeko planak garatzen lagundu digu.”



Enpresaren datuak

JUAN ALCAIN JAUREGUI S.A.



Alcain etxeak berritu zein dekoratzeko eraikuntzako, komuneko, sukaldeko eta burdindegiko materialak saltzen eta banatzen dituen konpainia bat da. Bi salmenta puntu ditu: Hondarribia eta Astigarragan. Bere esperientzia zabalari esker, eta saltzen dituzten produktuen barietate eta kalitateari esker, erreferente bihurtu dira eskualdean.

Sektorea: eraikuntzarako eta etxea berritzeko materialaren salmenta 105 langile

Amutalde kalea, 17 – 20280 Hondarribia (Gipuzkoa)

Aitor Davoz
aitor@alcain.com
943 642 025

BEHARRA

Alkainek produktuen katalogo zabala du, eta, ondorioz, zaila da hornidura katea kudeatzea. Enpresak jakin nahi zuen zein

neurritan zen eraginkorra bere errendimendua hornidura katearen kudeaketan, batez ere, stock-aren kudeaketan. Ahul-

gune nagusiak ezagutzea eta zer egin zitekeen hobetzeko.

KONPONBIDEA

Lehenik eta behin, langileei jakinaraztea zein garrantzitsua den hornidura katearen kudeaketa hobetzea. Enpresaren bizkarrezurra da eta zuzenean eragiten dio horren emaitzari. Kudeaketa egokiari esker, ez dago salmenta galerarik (stockean haustura egotea ekiditen da), eta kostuak murriz daitezke (stocka ere murriztuz). Enpresaren gastu nagusia

erosketa eta hornikuntza partida da, eta esparru horretan hobetuz gero, etekinak oso altuak izango lirateke.

Bigarrenik, oso garrantzitsua da ondo neurtzea. Zentzu horretan hobetzeko, informazio gehiago behar dugu. Zertan dugu stock gehiegi? Informazio hori behar dugu gerora erabakiak hartu ahal izateko.

Zer egin dezakegu sobratzen zaigun stockarekin? Hornitzaileari itzuli? Merkataritza kanpaina?

Eta hirugarrenik, eguneroko prozesuak hobetu behar ditugu gehiegizko stocka ez izateko. Horretarako, ezagutza eta tresnak behar dira.

PROIEKTUAREN HELBURUAK ETA JARDUERA NAGUSIAK

Stockaren kudeaketa hobetzea. Horretarako, diagnostikoa egin behar da lehenengo, puntu hauetan egin daitezkeen hobekuntzak ezagutzeko:

- Hornidura prozesuaren ekoizpena eta konplexutasuna.
- Enpresaren zerbitzu maila. Haustura kopurua stockean?

- Gehiegizko stocka konpainian. Stock-a eta salmentak lerrokatuta al daude?

Eta, bigarrenik, hutsune nagusiak zuzentzeko ekintza plana eta etorkizunean hutsuneak agertzea ekiditeko sistematika sortzea. Hornidura katea kudeatzea zaila denez, langileei laguntza emateko tresna bat behar dugu.

Arazo horiek konpontzeko eredu bat sortu zen, pilotu bat, eta konpainiaren ERPan ezarri zen Auren sortutako beharren AFO batetik abiatuta. Pilotua egiteko Auren sortutako ofimatika tresnak erabili ziren.

AURKITUTAKO OZTOPOAK ETA NOLA GAINDITU DIREN

Diseinatutako hornidura sistemak modu eraginkorrean funtziona dezan, sistema informatikoan dagoen logistikako informazioa behar dugu. Hori ere hobetu beharreko oztopo bat zen, eta, horretarako, ekintza plan bat jarri zen abian.

Hornitzaile bakoitzak zerbitzua emateko hartzen duen denbora erregistratu

behar da, saltzen diren artikulua eta lote bakoitzak izan ditzakeen salmenta minimoak. Horrez gain, garrantzitsua da jakitea zer artikulua hornitu behar diren eskari bidez eta zer artikulutan den hornidura politika stockaren aurkakoa. Edo, esaterako, zer artikulua ez den gehiago hornitu behar katalogotik kendu behar delako.

Hortaz, hornidura prozesua berriro diseinatzen den bitartean, sistemari funtsezko informazioa eman behar zaio egoki funtziona dezan.

EMAITZAK ETA IKASITAKOAK

Proiektuari esker, hauxe lortu du Alkainek:

- Taldeak barneratzea zer garrantzitsua den stocka egoki kudeatzea eta horrek enpresan dituen onurak.

- Egunerokotasunean hornidura egiteko erabiltzen diren tresnak hobetzea.
- Inbentario maila murriztea eta inbentarioaren errotazioa hobetzea.

ENPRESAREN TESTIGANTZA

“Alkainen, enpresaren etorkizunari begira, funtsezkoa edo oso garrantzitsua izan da eskaria planifikatzeko eta hornidurarako planifikazioa kudeatzeko proiektua ezartzea.

Errendimendua hobetu egin da hornidura katearen kudeaketan (erosketen eta horniduraren kudeaketa), batez ere stockaren kudeaketan. Stockean haus-tura asko egotea eragotzi da.

Stockeko artikulua bakoitzaren kantitatea eta erosketa unitateak asko optimizatu dira, eta nabarmen murriztu dira stockean lantzen diren artikuluen “gehie-nezko stockaren” kostuak (ez eskariena).

Stockean lantzen diren, baina “stock gehiegi sobratzen” zen artikulua identifikatu dira. Konponbidea emateko, merkataritza kanpainak antolatu dira eta hornitzaileekin negoziatu da horiek itzultzeko eta artikulua berriekin edo erro-tazio artikuluekin ordeztzeko.” – Alkainen burdindegia arduraduna

“Eskaria eta hornidura kudeatzeko “au-renSCM” tresnak zenbait faktore aintzat hartzen ditu (hornitzaile bakoitzaren zer-bitzu egunak, erosketa loteak, etab.) eta uneoro erosi beharreko stockeko artiku-lu bakoitzaren kopurua proposatzen du. Ez gaude biltegi bateko sekzio bakoitze-ko langilearen menpe.

Proiektua ezartzeari esker, enpresako langileek barneratu dute oso garrantzitsua dela stocka ondo kudeatzea, eta argi dute denak ondo funtziona dezan artikulua guztien stocka eta bidean da-goen stocka egunean egon behar duela.

Proiektuari esker, sekzioetako arduradunak ez daude biltegi baten menpe stockeko zer artikulua eskatu behar den erabakitzeko, ez eta artikulua bakoitzeko zenbat unitate erosi behar diren eraba-kitzeko ere.” – Salmenta eskarien ardu-raduna



Enpresaren datuak

Erakundeko komunikazioa eta lidergotza hobetzea

PLASTIBOR S.L.U.



Plastibor termoplastiko teknikoko eta termoegonkorreko piezak injektatzen dituzten azpikontratazio enpresa bat da.

Sektorea: termoplastikoen industria
124 langile

Boroa enpresa parkea, PARC. 2C-1
48340 Amorebieta (Bizkaia)

Iñaki Bilbao Apraiz
jba@plastibor.com

BEHARRA

